

Aldaketa ugari aurtengo Lasarte-Oria Bai! krosean

■ Irteera-helmuga eta ibilbide aldaketak herrian dauden lanak direla eta



Ostadar K.F.-ko atletismo saileko korrikalariak kamiseta teknikoarekin atera zuten argazkia prentsaurrekoa bukatzean.

Urria iritsi da eta honekin batera, hilaren bukaeran, urriaren 25ean Lasarte-Oria Bai! kros herrikoa. Horregatik, asteazkenean, Ostadar K.F.-ko Aitor Azkonobietak, Julen Ollokegik eta Itziar Carrascok aurtengo edizioaren aurkezpena egin zuten Manuel Lekuona Kultur etxean.

Haietaz gain, hainbat korrikalari ere izan ziren bertan, besteak beste, azken bi urteetan gizonetako mailan irabazle izan den David Martin herritarra.

Aldaketak

Krosa antolatzen laguntzen duten guztiei eta bertan zeuden korrikalarietako eskerrak eman ostean, antolatzaileek XIV. edizioak izango dituen aldaketak iragarri zituzten.

Aldaketa aipagarrienak ibilbidean eta irteera-helmuga

puntuari daude. "Gure herrian dauden lanak direla eta, ibilbidea aldatu behar izan dugu," azaldu zuen Aitor Azkonobietak.

Honela, irteera-helmuga Ostadarren egoitzaren parean egongo da, ibilbideari dagokionez, bigarren bueltan dira aldaketa gehienak.

Honetaz gain, lehenengoz sari-banaketa ekitaldia Kros txikia hasi aurretik egingo da eta korrikalarietako kamiseta tekniko eskuratuko dute izena ematean.

Era berean, korrikalari kopurua 1.300era murriztuko dela jakin arazi zuten antolatzaileek.

Etxe txikien lasterketak ere, Kros Txikiak, aldaketa batzuk izango ditu.

Batetik haur kopurua 800era igo dela, "urtero haur asko parte hartu ezinik gera-

tzen zirelako"; eta bestetik, ibilbidea.

Aldaketa hauek guztiak, urriaren 23an argitaratuko dugun TXINTXARRI berezian azalduko ditugu sakonago.

Izena ematea

Aitor Azkonobietak azaldu zuen bezala, "izena ematea asteartean, urriaren 13an zabalduko da."

Izena emateak 10 euro balio ditu, Ostadarreko bazkideentzat 6 euro dira eta atletismo sailekoek doan dute izena ematea. Egunean bertan egiten dutenek, berriz, 15 euro ordainduko dituzte.

Era berean, 5 eurotako bermea utzi behar da txiparengatik. Hau lasterketa bukatzean bueltatuko da.

Izena emateko aukera ugari dago. Lasarteoriatarrek Ostadar K.F.-ko egoitzan,

www.ostadarkf.org orrialdean edo 943 360 433 zenbakian, kanpokoek, berriz inguruko herriko, hainbat kirol denda-tan. Egunean bertan ere aukera egongo da.

Kros Txikiari dagokionez, Lasarte-Oriako ikastetxeetan urriaren 21era arte edo Ostadarreko egoitzan lasterketa bezpera arte egin dezakete izen-ematea. Haur bakoitzak 4 euro ordaindu behar ditu.

Azken egunera ez itxaron

Julen Ollokegik gainera, azken unera arte ez itxaroteko eskatu zuen, batez ere, Kros Txikian.

"Nahiz eta izena emate kopurua 800era igo dugun, gurasoei eskatu nahi diegu, batez ere, txikien kategorian lehenbait lehen izena emateko. Ilusio handien dutenak dira eta, beraz, dortsalak agortzen lehenengoak," adierazi zuen.



Semblante Andaluzeko abesbatzak sevillana grabatu du euskaraz /5

HIRIGINTZA /3

Loidi Barreneko merkatalgunea eraikitzeko azken pausua eman du Udalak

KIROLA /6

David Martin eta Endika Garcia podioko lehenengo mailan

TXINTXARRI-KO hurrengo zenbakia urriaren 16an argitaratuko da

GIZARTE-ETXEA TABERNA

Giro paregabea larunbat gauetan: afaria eta dantza



240 metro karratuko lokala

- Menu bereziak
- Plater konbinatuak
- Pintxoak
- Egitaratekoak

Bataioak: bazkaria, ondorengo festa, Urtebetetzeak...

Eguneko menua



Zumaburu 15 (Eliza azpiko taberna) • Lasarte-Oria • Tel.: 943 368703

Neure kabuz



Lur santuak?

Orain egun gutxi Israel eta Palestinatik etorri berriak gara. Pelegrinazio eran antolatutako ibilaldi bikain baten ondoren Lasarte-Oriara iritsi gara eta ezin ahanziti leku hartan bizi eta ikusitakoak. Berrogeita bederatzita herritar talde bikain bata osatuz. Gidari eta maisu herriko seme den Periko Camarero-Nuñez sakramentino apaiza, Biblian jakitun handia, esperientzi askoko laguna eta espirituz beteriko gizona. Hunki-garri izan dela ibilaldia ezin uka. Bestalde, hainbat anekdota eta gertakariak beterikoa.

Aurreneko hiru egunak Israelen izan ginen. Galilea eta Samaria, Bibliako garaian deituriko, Israel estatu berrian. Han dago Golan mendia muga eginez Siriarekin, iskanbila askoren testigu, oraindik ere. Bertan lautada zoragarri bat Genesaret aintziraren inguruan. Bertan Nazaret, Kafarnaun, Caná, Magdala... herri esanguratsua. Inguru horretan egindako saioak oso sakonak eta ederrak esan ziren. Itsasontziko jira hura, kibutz hartan egindako bazkaria, ezkontzako sakramentua berritzea... Eta handik hegoaldera munduan dagoen herri-rik zaharrena iritsi ginen, Jerikora. Arkeologia aldetik ez da gaurdaino hau baino herri zaharagorik aurkitu. Palestinan gaude, ordea. Palestinoen autonomia izan ere.

Palestina zatituta dago. Bi lurraldetan banatuta dago. Palestinoen artean haserre handiak daude. Batzuk autonomia estatus batekin bizi dira Zisjordania deitzen zen lurraldean. Hiri burua Bethelen da, bai Jesus jaio zen lekua. Han izan ginen. Oso ondo hartuak sentitu ginen. Bertan gehienak kristauak dira, ez musulmanak. Ba dira fraide eta moja ugari ere. Kurioso gertatu zitzaigun Brigidak ere bertan zirela jakin eta hariekin egotea. Jerusalem ere bai, hantxe daude. Gaza da beste palestinoen lur zatia. Banatua dago. Basamortuan zehar ibili behar. Gu ez ginen harataino iritsi baina bai Qunram eta Itsaso Hileria. Baina hartu. Beroa sumatu. Pobrezia eta aberastasunaren arteko harresia pasatu...

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Manuel

Zorionak Maite eta Juan Mariaren partetik. Ondo pasa eta afaria ordaindu.



Aiora

Zorionak! Txokolatzeko bi muxu eta Osaba Jesusen partetik.



Garazi

Zorionak! Txokolatzeko bi muxu, Amona Jakobi eta Osaba Jesusen partetik.



Beñat eta Irati

Zorionak eta muxu handiak Amaia, aita eta amatekoen partetik.



Mikel

Marrubizko 6 muxu handi eta zorionak.



Txema

Zorionak eta muxu asko. Cristina, Joana, Enara, aiton-amonak eta Maiteren partetik.



Marina

Urriak 6an ospatu zenuen zure lehen urtebetetzea. Zorionak Arantxaren partetik!



Alex

Zorionak! Ondo pasa eta muxu bat ama, aita eta Nahiaren partetik.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
 DYA 943 464622
 Gurutze Gorria ... 943 363953
 Udaltzainak 943 362442
 Ertzaintza 943 288888
 SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
 Euskarako Zerbitzua 943 376184
 Kiroldegia 943376182
 Kulturetxea 943376181
 Bakezko epaitegia 943371629
 Zerbitzu Sozialak 943376179
 Zentro Zibikoa ... 943363958
 KIUB 943361605
 Udal euskaltegia ... 943361621
 Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Guardiak

Ostirala, 9
 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
 Tel.: 943 363549
Larunbata, 10
 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361774
Igandea, 11
 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361774
Astelehena, 12
 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361774
Asteartea, 13
 Orue, Jaizkibel plaza 2
 Tel.: 943 362652
Asteazkena, 14
 De Miguel, Kale Nagusia 32
 Tel.: 943 371151
Osteguna, 15
 Urbistondo, San Frantzisko 1
 Tel.: 943 366567

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Ezcaray-en duplex bat saldu edo alokatzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzi dago. Ila berria. Harremanetarako zenbakia: 652 774 679

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaia eta berri berria. Bikotearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia: 657 708 866.

Salerosketak

• Salgai pisu bat, 2 logetakoa eta Atsokabar auzoan (fatxada txurikoa). Harremanetarako zenbakia: 627 310 660.

• Gurgil-aulki elektrikoak salgai. Dragon modelokoa. Harremanetarako zenbakia: 629 936.420.

Lan-eskaintzak

• 9 urteko neska bati etxean bertan ingeleseko klaseak emateko irakaslea behar da Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia: 635 707 689

• Hilabetean bi astez, 8:00etatik 9:00etara, eta aste betez, 16:30etik 18:00etara, haurrak ikastolara eraman edo jasotzeko pertsona baten bila gabiltza. Harremanetarako zenbakia: 626 614 111.

• 3 urteko haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. 12:00etatik 16:00ak arte inguru. Harremanetarako zenbakia: 646 645 445.

• Frantseseko klase indibidualak emateko irakaslea behar da Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 699 335 325.

Lan-eskariak

• Etxe batean interna edo orduka lana egingo nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Etxe batean interna lanetarako emakumea bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 943 368 574.

• 56 urteko emakume bat eskaintzen da goizeko 08:00etatik 15:00etara pertsona edade-etuak zaindu edo etxeko lanak egiteko Lasarte-Oria eta Hernani inguruan. Harremanetarako zenbakia: 687 348 223.


• Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Harremanetarako zenbakia: 646 717 676.

• Mutil arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduan zaintzen, baserrietan edo beste lanetan. Erreferentziak ditu. Harremanetarako zenbakia: 659 26 07 07.


• Pintorea eskaintzen da. Aurrekontua konpromezurik gabe. Harremanetarako 667 610 909 (David) edo deivid@euskalnet.net.

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.iragarkilaburak.com
 txintxarri@txintxarri.info
 Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

Jaiotzak 

Alain Iñigo Soberón,
 urriaren 1ean
 Asier Broekart González,
 irailaren 30ean
 Gift Eseoasa Enamuna,
 irailaren 27an

Heriotzak 

Jose M^o Arregui Ugalde, urriaren 1ean
 69 urte zituela
 Diego García Sánchez, irailaren 23an
 33 urte zituela

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriak ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Loidi Barreneko merkatalgunea eraikitzeke azken pausua eman da

■ Kotxerasesko proiektua ere pausoz pauso doa, hurrengoa urbanizatze plana

TXINTXARRI

Astelehenean ohiz kanpoko Udaltzarrean Loidi Barreneko HIEaren Barruko Erreformarako Plan berezia puntualki aldatzea onartu zuen Lasarte-Oriako Udalak PSOE, EB eta PPren bozkei esker. EAJK aurka bozkatu zuen eta LOHP eta adskribitu gabeko zinegotziak abstenitu ziren.

Honi esker, eremu horretako merkatalgunearen eraikuntza onesten da. Izan ere, kalifikazio aldatzea egin eta garajeen beheko solairua merkatalgune partzela bilakantzen da, hirugarren sektoreko ekintzak ahalbideratuz.

Onespen honek gainera plan berezian eranskin bat egitea dakar, desjabetze sistema.

Era honetara, Udalak bere gain hartzen du Loidi Barreneko eremuan beheko solairuetan dauden hiri-antolamentuaz kanpoko lokalen desjabetzea, baita lekuz aldatu ezin direnena ere.

Helburua, hauek eraitsi eta Loidi Baren inguruan dauden plazak egokitzeaz gain, oinezkoentzako eremu librea lortzea da.



Merkatalgunea eraikitzeke azken aldaketa egin du Lasarte-Oriako Udalak aste honetako ohiz kanpoko Udaltzarrean.

Kotxeras

Era berean, Kotxeras eremuko berrantolakuntza prozesuak ere aurrera egingo du, HIEaren kontzertazio hitzarmena onetsi baitzen, PSOE, EB, PP, EAJ eta LOHPko bozkei esker; adskribitu gabeko zinegotziak, aldiz, aurka agertu ziren.

Honetaz gain, hitzarmen honi Gruas Oriá enpresak egindako alegazioa ontzat ez hartzea erabaki zen, "ez baita alegazio hori aztertzeke garaia eta, beraz, proiektu

honen kontzertazio hitzarmenearin ez duelako."

Beraz, hurrengo pausuak Kotxeras eremuko urbanizatze programa eta, beharrezkoa balitz, berrantolaketa proiektua egitea izango lirarteke eta hauek onartzea. •

Nola berezi perretxiko pozoitsuak?

Daniel Palacios mikologian adituak hainbat gomendio eman zien asteazkenean Arrieskalleta elkartearen bildu ziren herritarrei.

Bertara ermandako perretxiko eta argazkien bidez, mikologoak, besteak beste, *Amanita phalloides* mota ezberdinak nola ezagutu azaldu zuten.

Horretaz gain, perretxikoek pozoitsuak sortu ahal dituzten azaroak eta perretxiko ezberdinei herritarrek ematen dizkieten izenetaz ere mintzo zen.

Hitzaldi parte hartzaile benetan, izan ere, elkartearen bildu zirenek gaiari sakondu nahian galdera dezente egin baitzioten Daniel Palaciosi. •



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

Atsobarreko aitona-amonak Aquariumaz gozatu zuten

Atsobakar Zaharren egoitzeko aitona amonek egunerokotasuna alde batera utzi eta Donostiako Aquariuma ezagutzera joan ziren irailaren 24an eta urriaren 2an.

Senide eta zaintzaileen laguntzaz, Aquarium berriztatua ikusi eta bertan dauden animaliak ezagutu ahal izan zituzten.

Esperientzia paregabea, izan ere, Lasarte-Oriatik kanpo egiten duten lehen bisi-

ta baita hau. Normalean herrian zehar ibiltzen dira aitona-amonak, esate baterako, asteazkenean herriko merkatura hurbiltzen dira.

Txango gehiago

Atsobarreko zaharren egoitzako arduradunek txango gehiago antolatzeke asmoa dute aurrerantzean eta, aurreratu dutenez, Zientziaren Kutxagunera bisita izango da hurrengoa. •

IKASTAROA

Batukada ikasteko aukera

Ttakun Kultur Elkarrekin antolatzen duen Batukada ikastaroaren lehenengo bilera gaur egingo da, urriaren 9an, arratsaldeko 19:00etan Landaberri ikastolako Garaikoetxeako eraikineko soinketa gelan.

Ekaina arte ostiralero bi orduko saioak egingo dira. Ikastaroa Iñaki Zugastik gidatuko du, iaz ere bera izan zen irakaslea.

Matrikula 15 eurokoa izango da hilero eta ikastaroa hasi ostean ordainduko dute ikastaroan izena ematen dutenek. Anima zaitzete! •

OSPAKIZUNAK

Mendi Kafe Rocken V. urteurrena bihar

Bost urte igaro dira Mendi Kafe Rock-ek bere ateak ireki zituenetik. Urtemuga berezia ospatzeko bihar ekintza ugari prestatu ditu herrian.

Baina ez da bakarria urtemuga ospatzen, *Drakos Custom* motozaleen taldeak ere bere VI. urteurrena ospatzen baitu eta Mendi Kafe Rockekoarekin bat egingo du.

Eguraldi ona eginez gero, era ezberdinetako 50 bat motor bildu daitezke gure herrian eta guztiak Dorre parken egongo dira 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etatik aurrera.

Honela, eguerdian hamaketakoa egingo da Mendi Kafe Rocken. Ostean, motorrak ibilbidea egingo dute Oriara eta 13:00ak alderabazkaria izango dute Larre jatetxean.

Ospakizunak era paregabean bukatzeko, arratsaldeko 17:30etatik taberna itxi arte, djak, opariak eta sorpresa ugari egongo dira Mendi Kafe Rock-en. •

BAKARRIZKETAK

Naiban tabernan hilero bakarriketaz gozatzeko aukera

Hemendik aurrera, bakarriketak entzuteko aukera paregabea egongo da hilero Andatza plazako Naiban tabernan.

Hileko bigarren ostiralean izango da hitzordua tabernan, gaueko 23:30ak aldera eta doaneko sarrera izango da gainera.

Emanaldi multzo hauei gaur emango zaie hasiera eta umorea izango da nagusi, Alex de Bilbao gonbidatu baitu Naiban tabernak. •

Buruntzaldeko Industrialdea sortu da

Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbilek akordioa sinatu dute Hernani, Foru Aldundi eta Sprilur-ekin Hernaniko Industrialdea elkar-tee Buruntzaldeko Industrialdea bihurtzeko. Helburua gure eremuan garapen ekonomikoa sustatu, lanpostuak sortu eta industriarako lurak garatuko dituen instrumentu bat sortzea izan da.

Iñaki Mugika Hirigintzako buruak azaldu digunez, "Sprilur-aren asmoa, azken aldian, mankomunitateak sortzea da. Era honetara, herri txikiak Industrialdea sortu nahiez gero, aukera izango lukete eta, gainera, bere eremuko Industrialdeko elkar-teearen laguntza eta esperientzia izango lituzke."

Aldaketa

"Hernaniko Industrialdean Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Hernaniko Udalak sortzen zuten. Inguruko herriek zituzten proiektuak kontuan izanik, Hernaniko Buruntzaldeko Industrialdea bilakatzeko proposamena egin zen. Hone-

la, lehengo astean egindako batzarrean erakundeetako, Hernaniko Udaleko eta Buruntzaldeko udaletako ordezkariak bildu ziren eta izen aldaketa erabaki zen," adierazi digu Iñaki Mugikak.

Baina ez da hori aldaketa bakarra izan, elkar-teearen estatutuak ere aldatu behar baitira elkar-teeak Buruntzaldeko beste herrietan lan egin ahal dezan. "Honela, proiektuen arabera, akzioen elkar-teea eginez, herriek presentzia izango dute elkar-teean," aipatu digu hiri-gintzako arduradunak.

Eta "herri bakoitzak bere proiektua gauzatuko du eta hark jarriko du behar den inbertsioa. Buruntzaldeko beste herriek ez dute bertan eginkizunik izango. Era berean, Udal bakoitzak bere herrian bertan egingo du bere industria gunea. Ez gara guztiak gune bakarrean egongo komunikabide batzuetan aditza eman den bezala," gaineratu du.

Proiektuak

Oraingoz, bi proiektu nagusi



Laranja kolorez dagoen zatia da Michelin fundazioak Udalari proposatutako lur eremua. Arg.: Gipuzkoako Foru Aldundia

egingo ditu elkar-tee berriak, batetik Hernaniko Udalak Galarretan egingo duena eta bestetik Michelin fundazioak Lasarte-Orian egingo duena.

"Ekintza garrantzitsua da Michelin fundazioak egingo duena. Lanpostuak sortzeko

asmoarekin, lur eremu bat eskaini du, Oria ibaiaren ondokoa, industria gune bilakatzeko," esan digu Mugikak. Proposamena aztertzen ari direla ere aipatu du, izan ere, 300 bat lanpostu sortzeko aukera baitago.

Gainera, hurrengo urterako eraikitzen hasiko dela ere aurreratu du, "hori izan zen Michelin fundazioak hartu zuen konpromezua Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Lasarte-Oriako, zein Usurbilgo udalarekin." •



Arg.: Zubietarrak

Erraustegia ipini nahi duten lekuan haritzak landatu zituzten.

Errauskailuaren aurka haritzak

Errauskailuaren eraikuntzarako katak hasi direla eta, Usurbil, Lasarte-Oria, Zubieta eta inguruko herrietako 50 bat biztanlek errauskailua egin nahi duten tokira ibilaldia egin zuten lehengo larunbatean.

Bertara iritsi eta katak egiten ari diren makinaren ondoan, txikioari aurre egiteko asmoarekin haritzak landatu zituzten.

Orain da garaia

Era honetara, Gipuzkoako gizarteari eta batez ere inguruko herritarrei dei egiten diete astakeria honen kontra altxa daitezen.

Era berean, antolatzen diren ekintza guztietan parte har dezaten ere eskatzen diete,

"orain baita garaia, guztion osasunarentzat kaltegarria izango litzatekeen erraustegia eta hau bultzatzen dutenak geldiarazteko."

Eta zera gaineratu zuten, "atez ateko bilketarekin frogatuta gelditzen da errauskailuarena beharrezkoa ez den obra garestia dela."

Hondakinen lege berririk ez

Bestalde, irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzak atzera bota zuen Hondakinen Euskal Lege berriaren proposamena.

Legebiltzarrean duela 3 hilabete aurkeztutako proposamenak 35000 herritarren babesa zuen eta, hala ere, ez da aintzat hartu "hondakinen kon-

petentziak Aldundi, Udal eta Jaurlaritzako ingurumeneko sailak kudeatzen baitituzte."

Errausketaren aurkako plataformek diotenaren arabera, lege hutsunea dago eta erakunde bakoitzak nahi edo ahal duena egiten du, "Gipuzkoako Aldundiak errausketa eta bere inguruko negozioak bultzatu; Usurbil, Hernani, Lasarte... Udalek atez ateko bilketa defendatu, hau delakoan hondakinak kudeatzeko modurik osasuntsuena, jasangarriena, merkeena eta ingurugiroan eragin gutxiene duena."

Honela, hondakinen kudeaketa sistema aldaketa lortu arte ez dute etsiko. •



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Semblante Andaluz, Pirritx eta Porrotxekin

■ Semblante Rociero abesbatzak *sevillana* bat abestu du euskaraz ■ Kuba, Senegal, Galizia eta Andaluziako kantak dira pailazoan diska berrian ■ Larunbat honetan amaituko dute grabaketa

Semblante Andaluz elkarteko abesbatzak *sevillana* bat euskaraz kantatu eta grabatu du Pirritx eta Porrotx pailazoekin batera hauek abenduaren argitaratuko duten "Irrien Lagunak" diska berrian sartzeko. "Abuela Maria Luisa" abestiaren letra Jon Maia bertsolariak idatzi du. Asteazken arratsaldean Andoaingo Garate estudioan burututako grabaketan izan ginen Semblanteko abeslari, pailazo eta teknikariek.

JON ALTUNA

Pirritx, Porrotx eta Mari Motos pailazoek bihar larunbata amaituko dute "Irrien Lagunak" disko berriaren grabaketa Andoaingo Garate estudioetan. Bertan hainbat euskal abestirekin batera, Kubako, Senegalgo, Galiziako eta Andaluziako doinuak eta ahotsak izango dira. Abestietako bat berezia da, mutiko batek Sevillana bat kantatuko baitio Andaluziatik etorritako bere amonari. Jon Maia bertsolariak "Amona Maria Luisa" jarri dio izenburu abestiari, eta Extremaduratik etorri zen bere amona Maria Luisan oinarritua da.

Kantuaren errepika grabatu zuten asteazken arratsaldean Semblante Andaluz elkarteko kideek. Herriko "Semblante Rociero" abesbatzako hogeit lagun igo ziren Andoaingo Garate estudioetara eta umore onean behin eta berriro abestu behar izan zuten "Beti oroituen gure abuelita Maria Lui-

sak... Andaluzia eta olibondoan geriza... maite du trikitixa!" leloa, diskoak abestiak egokitu dituen Xabier Zabala musikariaren eta grabaketaz arduratu den Haritz Harreguy teknikariaren agindua jarraituz.

Diskoaren sorkuntzan eta grabaketan hainbat lagunek hartu dute parte, besteak beste, Oreak Tx, Tapia eta Leturia, Pantxo eta Peio, Kaki Arkarazo, Oskar Estanga, Gorka Urbizu, Asier Gozategi, Olatz Korta eta Labrit Zabala musikariek.

Zenbait berezitasun baditu diskoak: Maialen Lujanbiok 'Irri egiten duenari' eta Ainhoa Agirreazaldegik 'Egjozu euskaraz' bertsoak egin dituzte eta Joseba Sarrionandiak kopla batzuk igarkizunetan jolasteko. Kanpotik etorritako lagunak ere ageri dira, *O Sonoro Maxín* talde galiziarrek 'Quero-te máis' grabatu du, *maite zaitut* euren hizkuntzan, Ondarroako senegaldarrek ere haien hizkuntzatan kantatu dute, eta



Semblante Andaluzeko abeslariak pailazoekin. Eskubian, makurtuta, abestiak moldatu dituen Xabier Zabala musikaria.



Haritz Harreguy teknikaria arduratu da "Irrien lagunak" diskaren grabaketaz.

Kultur astea

Semblante Andaluz elkarteak datorren astean burutuko du VII. aste kulturala. "Y parece que fue ayer" erakusketa zabalik izango da astelehene-tik aurrera. Asteastetik ostegunera, 18:00tan, mus, tute eta patata tortilen lehiaketak egingo dira besteak beste, ostira-lean haurrentzako marrazki lehiaketa, jolasak eta txokolata, larunbatean 19:00tan hitzaldia: "Folklore eta Gastronomía Andaluziako feriatan" gaia jorratuko du Rafael Gomez Priegok eta igandean herri bazkaria izango da elkarte, 18:00tan haurren dantza emanaldia, 19:00tan sari banaketa eta amaitzeko Rocioko Salbe eta Andaluziako Ereserkia abestuko dituzte.

Dúo Jade bikote kubatarrek bi abesti kantatu ditu, bata euskaraz eta bestea, gazteleraz.

Sudurgorrien festa

Diska berriak "Irrien lagunak" izena dauka eta i deia, Joxe Mari Agirretxek jakinarazi digunez, sudurgorrien festatik dator: urtero ospatu ohi dute udaren atarian ikasturteari agur esan eta oporrei kaixo esateko. "Eta bide batez borobilean jarri eta galdetzen diegu haurrei, zer gogoratzen duzue ikasturteaz?, orduan denek altxatzen dute eskua, denek daukatelako zerbait esateko, nolabait bihotzez edo sentimenduz ikasten dena sekula ahazten ez delako. Ikasturtearen puzzlea osatzen dugu haurren kontakizun eta bizipenak kontutan hartuta, irakasleekin batera. 20

kantu dira eta kantu bakoitza puzzlearen zatitxo bat da" kontatu digu Porrotxek.

Sevillana berezia

Semblante abesten duen kantua berezia da Agirretxek esan digunez: "Haurrek denetarik gogoratzen dute, baina batek dio gogoan duela nola bere amonak egunero egunero esku-tik helduta eramaten zuela eskolara eta ikasturteko egun batean amona hil zitzaioa. Hasieran negar eg in zuen baina gelako ikaskideek marrazkiak oparitu zizkieten, amonaren agurra antolatuz zuten eta agur horretan haurrak bere amona andaluzari *sevillana* bat kantatzen dio euskaraz. Letra Jon Maia bertsolariak idatzi du eta "Abuela Maria Luisa" dauka izena abestiak, Jon Maia-aren amona Maria Luisa zelako. Gu aspalditik genbiltzan *sevillana* bat euskaraz grabatzeko gogoarekin, Andaluziako herriari keinu bat egiteko eta gainera *sevillan* abesti eta dantza bezala oso indartsuak eta oso alaiak direlako".

Lasarte Oriako Semblante Andaluz elkartearekin harremanetan jarri eta Semblante Rocieroko kideek "hasieratik oso harrera ona egin ziduten ideiak eta gaur hemen dauka grabatzen. Espero dugu aurrerantzean beste zerbait elkarlanean burutzea lasarteko lagun hauekin" amaitu zuen Agirretxek. •



- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXKO POSTREAK
- GOSARIAK

Kalitatea eta preziorik onena
leku berean

Jalai
Cafe bar

TEL.: 943 372760

EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Ostirala 9

19:30ean, Texas Lasartearra-Trintxerpe (I. Jubenila) Michelinen.

Larunbata 10

10:30ean, Ostadar-Hernani (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Usubil (Emakumezko Erregionala) Michelinen.

17:15ean, Ostadar-Beti Gazte (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

10:30ean, Oiarzun-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Karla Lekuona zelaia, Oiarzunen

12:00etan, Kostkas M.B.-Ostadar (I. Kadetea) Matigoxotegi, Donostian.

17:30ean, Usubil-Ostadar (Erregionala Goren) Harane, Usubilen.

19:30ean, Vasconia-Ostadar (I. Jubenila) Martutene, Donostian.

Igandea 11

12:00etan, Sporting de Herrera-Ostadar (Infantil txikiak) Herrera, Donostian.



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 10

17:30ean, Jarrilleros-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Zubi-Alde kiroldegia, Portugaleten.

Igandea 11

11:30ean, Yone Boutique-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Hernaniko kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 9

19:00etan, Ilunpe-Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Frontoi txiki, Azpeitian.

Larunbata 10

11:15ean, Urnieta-Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Urnietan.



JUDO

Ostirala 9

Asteburu osoan, LOKEko Leire Zubizarreta Siziilara doa Hondarrabiko taldearekin nazioarteko taldekako txapelketan parte hartzera.

Larunbata 10

Asteburu osoa, LOKEko Esteban Martinez, Mario Garrido eta Josu Olmos kadeteek Ville de Pau nazioarteko txapelketan parte hartuko dute, Frantzia.



Endika Gartzia eta David Martin garaile

■ Davidek Zakila bira lasterketa irabazi zuen eta Endikak, berriz, Arriarango duatloi krosa

Lehengo asteburuan hainbat herri lasterketa eta txapelketa burutu dira, hala nola, Zumaiaiko Zakila bira eta Orreaga-Zubiri lasterketak eta Arriarango duatloi kros txapelketa. Hiru haue-tan herriko atletak izan ditugu lehian eta Zumaiaiko lasterketan eta duatloi txapelketan gainera, lehengo postuak eskuratu dituzte gure bi herritarrek, David Martin eta Endika Gartziak.

Zumaiaiko Zakila biran giro ederra zegoen lehengo larunbatean. Eguraldiak lagundurik herritar ugari bildu zen Zumaiaiko kaleetan zehar 800 korrikalariei animoak emateko.

XIII. edizio hau korrikalari kopuru handiena izan duena da, baita David Martinek irabazi duena ere.

Hasieratik lasterketa buruan egon zen lasarteoriatarra. Bere erritmoa ezarri eta pixkanaka errenta lortu zuen. 16. kilometroan 1m eta 16 s-gko tartea zegoen David eta bigarrenaren artean.

Beraz, lasai iritsi zen helmugara 1:h.06:18ko denbora eginez.

Hala ere, ez zen sailkapene-ko lehengo postuetan iritsi zen herritar bakarra izan. Izan ere, Gonzalo Sukunza 4. postua eskuratu baitzuen.

Duatloi txapelketa

Bestalde, egun berean, Gipuzkoako Arriaran herrian, duatloi krosko txapelketa jokatu zen.

Proba distantzia motzean ospatu zen, hau da, parte har-



Endika Gartzia duatloi krosko podioko lehenengo mailan. Arg.: Mendikogune

tzaileek 6 km korrika, 20 km txirringan eta, bukatzeko, beste 3 km korrika egin behar izan zituzten.

Endika Gartzia lasarteoriatarrak 1:35:34ko denbora osatu zuen garaipena lortzeko. Nahiz eta lehenengo sektorean ez ongi ibili, txirringan hartu zuen tartea eta 3 km-tako lasterketan errenta mantentzen jakin zuen.

Proba honetan ere, Andoni Illaramendi herritarrek parte hartu zuen eta 10. postua eskuratzeko gain, taldeetan

lehenengo postua lortu zuen Antxintxika taldearekin.

Orreaga-Zubiri lasterketa

Honetaz gain, Ostadar K.F.-ko eta herriko hainbat korrikalarik Orreaga-Zubiri lasterketan parte hartu zuten.

Donejakue bidean barrena, herriko 20 korrikalariek Orreaga eta Zubiri artean dauden 21,5 kilometroak egin zituzten.

Horiek guztietatik azkarrena Julen Ollokiegi izan zen, 01:28:52ko denbora eginez. •

Kiroletako oharrak

Kirol guneetako ordutegia

Kiroldegia, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandee-tan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era, larunbate-tan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandee-tan 9:00etatik 13:00etaetara.

Michelingo kirol gunea, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunba-

tetan 9:00etatik 20:00etara eta igandee-tan 9:00etatik 13:00etara.

Ostadar K.F.-ko Loteria

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai.

Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkar-tearentzat dira.

Interesa duenak kirol elkarte-ko egoitzara hurbiltzea beste-rik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.



Arg.: Tomas Arruti

X. urteurren jendetsua.- Lehengo larunbatean Basaundi bailaratik irten eta Leitza bidea egin zuten 40 bat herritarrek. Buelta egin eta Lasarte-Orian indarrak ederki berreskuratu ahal izan zituzten Buruntz-Azpi elkarte-antolatutako bazkariari esker. Hamar urte dira artea hau egiten dela eta egun seinalatua ospatzeko, antolatzaileek kamixetak egin eta txangoan parte hartu zuten banatu zizkieten. Eta, gainera, giro ederra izan zen bazkari ostean txalaparta, trikitixa eta panderoaren laguntzaz. •

Egunero

Erakusketa

ISLA BISUALAK izeneko erakusketa. Oscar Pozosen, argazkiak. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Ostirala, 9

Bertso-afaria

BERTO-AFARI MUSIKATUA egingo dute Xirimirin. Menua: ensaladilla errusiarrak, kalabaza krema, entrekot patata purearekin eta profiteroleak txokolatekin; kafea, kopa, edaria. Guztia 15 euro. Xirimiri Elkarteak, 21:00etan.

Bakarrizketa

ALEX DE BILBAO artistak bakarrizketa eskainiko du. Hilero egingo dituzte bakarrizketak, bigarren ostiraletan. Sarrera doan. Naiban tabernan, 23:30etan.

Larunbata, 10

Kontzertua

ALBOKA ABESBATAK doinu sacro eta herrikoiak eskainiko ditu Castejonon eskainiko duen kontzertuan. San Francisco Javier eliza, Castejonon, 20:00etan.



Herriko taldea kulturetxean

PLASTIC taldearen emanaldia izango dugu kulturetxeko kafetegian Lasarte-Oriako udalak eta Xpression kultur taldeak sinatutako hitzarmenaren barnean.

Plastic taldeak rocka eta brit pop akustikoa jorratzen ditu.

OSTIRALEAN, 16an, 20:00ETAN
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
SARRERA, DOAN

Osteguna, 15

Hitzaldia

GURASOAK SEPARATZEN DIRENEAN hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Larunbata, 17

Antzerkia

ATE-JOKA antzezlanak Txalo produkzioen eskutik. Sarrera 10 euro. Kulturetxean, 20:00etan. EUSKARAZ.



Antzerkia

PAREJA DE TRES antzezlanak Txalo produkzioen eskutik. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan, GAZTELANIAZ.

Semblante Andaluz elkartearen VII. Aste Kulturala

Astelehena, 12

12:30ean, OHOREZKO ARDOA, LUNTXA eta "Y PARECE QUE FUE AYER" erakusketa.

Asteartea, 13

18:00etan, MUS TXAPELKETA.

Asteazkena, 14

18:00etan, TUTE TXAPELKETA.

Osteguna, 15

18:00etan, PATATA TORTILEN lehiaketa.

18:30ean, POTORA botatzeko lehiaketa.

Ostirala, 16

18:00etan, HAURRENZAKO MARRAZKI LEHIAKETA. Jolasak eta txokolatada ere bai.

Larunbata, 17

19:00etan, FOLKLOREA ETA GASTRONOMIA ANDALUZIAR FERIETAN hitzaldia eskainiko du Rafael Gomez Priegok.

Igandea, 18

14:30ean, HERRI BAZKARIA.

18:00etan, M^a Carmen Vegasen dantzako HAURREN TALDEEN EMANALDIA.

19:00etan, SARIAK BANATUKO dituzte eta amaitzeko, salbe rozieroa eta Andaluziako ereserki abestuko dira.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik
21:00etara
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa.

Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Katxalin elkarteak Loteria

Minbizi ginekologikoa edo bularreko minbiziaren izan duten emakumeek osatzen duten Katxalin Elkarteak lagundu nahi dioten herritarrek Eguberrietako Loteriaren partaidetzak eros ditzakete, 3 eurotan eta 0,50 eurotako dohaintzarekin, Lasarte-Oriako KIUBen, 9:00etatik 13:00etara.

1962. urtean jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasarteartentzat afari bat antolatuko dugu azaroaren 14rako. Interesa duzuenok jarraian dauden telefono zenbaki hauek deitu dezakezue 19:00etatik aurrera: 646 274 376 (Bea) eta 659 950 363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31 da. Anima zaitzete!

Helduen antzerki taldea

Landaberri Antzerki Eskolak jakinarazi nahi du helduen

talde berri bat sortu dela. Talde hau ostegunetan bilduko da iluntzeko 19:30etik 21:00etara. Oraindik plazak badaudenez, interesa dezutenok deitu 943 371448 telefonora informazioa jasotzeko edo apuntatzeko. Euskaraz izango dira eskolak, beraz, oso egokia da euskara ikasten ari zaretenontzako, eta erdoiltzen utzi nahi ez duzenentzat.

Oriatarren bazkaria

Urtero legez Oria auzoko bizilagun eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 18an. Txitxardin Beltza jatetxean izango da eta aurten Bruneteko eta Oria auzoko praktikante izandako Jose Javier San Sebastian omenduko dute.

Bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauek deitu behar da 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol) urriaren 10a baino lehen.

Oztabide elkarteak loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrekin jakin arazten die eguberrietako loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5) loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elakrteak.

Edozein zalantza argitzez, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu.

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatza entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxo-

ei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegu Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingo da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Txokotako argazkiak

Udaran, uztailea eta abuztuan, Txakun antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten Cdak eskuragarri daudela dagoeneko Amarun ludotekan (Ola kalea 1). Orduetgia: 17:00etatik 20:00etara.

Martija anaiei omenaldia

Urriaren 17an, omenaldia egingo nahi zaie hainbat urtetan Sasoeta-Saustatko futbol taldeko entrenatzaile lanetan ibili ziren Jose eta Iñaki Martija anaiei. Antolatzaileek 1978 eta 1992 urteetan zehar talde ezberdinetan parte hartu duten jokalariek bildu nahi dituzte.

Horretarako, blog bat argi-

taratu dute, www.loschicosdemartija.blogspot.com. Bertan, omenaldian nola parte hartu azaltzen da. Beraz, Martijatarren mutilak izan zaretenok animatu eta sartu blogean, urriaren 10era arte duzue izena emateko.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak urriaren 7an hasiko dira 18:30etik 20:30era. Oraindik plazak badaudenez, izena emateko aukera dago kulturetxeko 2. solairuan arratsalde 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Amaia Agirre Bertsolari Txapelketa Nagusian partaide, igandean, urriaren 11an, Bilboko Arriaga Antzokian, 17:30ean

‘Pozik ikusiko nituzke aurpegi berriak’

■ Bertso eskolako irakasle ohiak bertsotan inoiz baino erosoago ari dela dio ■ Ez du zalantzarik, duela lau urte bezala aurreko itxaropenak beteko dira aurten ere ■ Jendea zain antzematen du

Amaia Agirre, villabonarra, Lasarte-Oriako heldu eta gazteen bertso irakaslea izan zen eta tarteka parte hartzen du bertso eskolaren ekimenetan. Euskal Filologian lizentziatua, 32 urte ditu eta ikastetxeetan bertsolaritzako irakaslea da egun, Unai Muñza bezala. Biak dira Hamaika Bertuteko kide ere. Gipuzkoako 2003ko txapelketan finalista eta 2007koan finalaurrekoetara sailkatu zen. 2005eko Txapelketa Nagusian ere finalaurrekoetara iritsi zen.

JON ALTUNA

Bilbon kantatuko du igandean, Arriaga antzokian arratsaldeko 17:30ean. Urteko 80ren bat saio egiten dituela esan digu Amaiak baina dudarik gabe urteko saio bereziena izango du etzi. “La gun giroko saioak ditut gustukoena, baita gure gogo edo ideia baten inguruan antolatzen ditugun saioak ere. Hala ere, arlo guztietan bezala, denetik egitea komeni da, eta oreka bat aurkituz gero denak dira erakargarri”.

Bertsotan noiz eta nolatan hasi zinen?

Villabonako ikastolako irakasle baten bitartez zaletu nintzen. 13 urterekin Tolosako bertso-eskolan hasi nintzen Jokin Sorozabal irakasle gurea. Gero Hernaniko bertso-eskolara joaten hasi nintzen, eta handik aurrera nire kasa gehiago aritu naiz lagun artean elkartzu baino.

Zein oroitzen duzu Lasarte-Oriako Bertso eskolaz? Nola ikusten duzu egun eskola?

Lasarten helduen eta gazteen bertso-eskoletako irakasle aritu nintzen, baina urte asko pasa dira geroztik. Inoiz edo behin gaur egungo taldera joan izan naiz, baina klasez kanpoko harremana da eurekiko dudana.

Talde heterogeno eta kolore anitzekoa da. Oso aberatsa, erakargarria. Herri denetan horrelako talde bat egotearen jendeak zernahi emango luke. Eta elkarren artean duten giroa mirestekoa da, baita saioak antolatze eta ideia berriak aurrera eramateko duten gogoia ere.

“Maila sekulakoa iruditzen zait niri. Finalerako txartela garesti dago, eta txapela are garestiago

Lehen aldiz kantatuko al duzu Euskal Herriko txapelketan?

Ez, bigarren aldia da. Duela lau urte finaleko ateetan geratu nintzen. Lehen finalerdian, Hendaian, saio ona egin nuen baina bigarren finalerdian, Urrerxun, beste batzuk nik baino puntu gehiago lortu zituzten.

Nola ikusten duzu zure burua? Bertsorako puntuan al zaude?

Herrialdeetako txapelketetan lortzen da Txapelketa Nagusirako txartela. Guk duela bi urte lortu genuen, beste gipuzkoar guztiak bezala.

Txapelketak niri sekulako egurra ematen dit, nire burua gehiegi estutzen dudalako, eta egia esan azkeneko bi hilabete hauek ez dira samurrak izango, baina norberak bere buruari jartzen dion presioaren arabera izaten da hori.

Ez dakit nire punturik onenetan nagoen, baina bertsotan inoiz baino erosoago ari naiz. Horrek ez du esan nahi inoizko mailarik onenean ari naizenik, konfiantza hartzen noala baizik. Ikusiko da zer emateko gai naizen. Ojala nire baitan dagoena azaltzeko gai banintz behar den egun eta orduetan!



Bigarren aldiz kantatuko du Amaia Agirrek Euskal Herriko Txapelketa Nagusian.

Urduri jartzen hasi al zara jada? Nola lortu daiteke aldarde onean igotzea ohol-tza gainera?

Ametsetan bertso erdian gertatzen eta saioetara berandu iristen hasi naiz, hortik ateratu kontuak! Aldardegia onean ez dakit nola joaten den, ni beti estu eta dardarka joaten naiz. Egin dezakedala sinistuta joan nahi nuke, animoso. Ikusiko da lortzen dudan edo ez.

Nola prestatu duzu txapelketa? Zer bait berezirik egin al duzu?

Bertsokideak lagunartean geratu ohi dira bertsoan entrenatzeko. Nik ez dut inoiz horrelakorik egin. Gaizki pasatzen dut. Nik jendaurrean ez bada ez dut kontzentrazioa lortzen, eta tentsiorik ez egin dezaket bertsoan. Ez dut ezer berezirik egin. Almazena betetzea da kontua, baina gero almagaztatu den hori ondo antolatzea eta momentu bakoitzean behar dena topatzea da ezinbestekoa, eta hori ez da erreza izaten.

Beteko al da berriro BEC? Osasuntsu al da bertsolaritza?

Duela lau urte bezala pronostiko eta espektatiba denak bete gerta daiteke duela lau urteko jendea zain antzematen dut.

Zein zortzi bertsolari izango dira finalean? Sorpresarik izango al da?

Egaña, Lujanbio, Arzallus, Elortza, Mendiluze, Iturriaga... Eta bi leku utzizko ditut berrietan. Berrien artean beste zortzikote bat ikusten dut hautagai. Baina gerta daiteke duela lau urteko zortzikotea taularatzea. Nik pozik ikusiko nituzke aurpegi eta txapeldun berria.

Nor izango da txapeldun? Eta zeinen alde egingo duzu?

Maialen Lujanbio mundial dabil bertsotan. Nahiago nuke haren erdia egingo banu!! Ametsekin ere ojo!

Oro har, zein maila dago? Estua izango al da finala?

Maila sekulakoa iruditzen zait niri. Finalerako txartela garesti dago, eta txapela are garestiago. Tentsio horretan bertso mailarik onenaren jabe egitea ez da erreza izango, baina ziur nago finalista bakoitzak utziko duela bertso gogoangarriren bat, eta eguna bera izango dela ahaztezina.

Zu kasualitatez sartuko bazina, ze litzateke zuretzat?

Duela lau urte, oraindik ohol-tza hutsik zegoela, mikrofono aurrean jarri nintzen. BEC oraindik hutsa zegoen, eta hala ere inpresioa egin zidan. Pentsa zer litzatekeen txalo hots artean sartu eta han kantatzea. Nire amets nagusietako bat, dudarik gabe. Ametsek amets izateari uzten omen diote betetzen direnean baina... uste dut ametsetan segi beharko dudala. •

“BECen kantatzea nire amets nagusietako bat da, baina... uste dut ametsetan segi beharko dudala



Arg.:Alberto Elozegi

Zestoatik abiatu da 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusia aurreko larunbatean hasi zen Zestean, hain zuzen ere, Manuel Uztapideren jaioeterrian eta hari aipamen berezia eginez. Bertan izan zen Miren Artetxe, bosgarren, Jone Uria, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Oihana Bartraren atzetik. Amaia Agirrek igandean kantatuko du Bilboko Arriaga Antzokian eta Unai Muñak hurrengo larunbatean Uztaritzen.